

2. Sin.: Ospakizuna; Errittoa. *Erljio-kizunen edo *elizkizunen, eta batez ere *sakramentuen ospakuntza janzten duen ageriko egintza eta keinu sinboliko guztien multzoa, edo ospakizuna beronen osotasunean.

Zeremoniaren eta errittoaeren artean ez dago bereizgarri handirik; baina zeremonia agerkari sinbolikoen jantziari dagokio batez ere; errittoa hitzak, berriz, gehiago begiratzeko die erlijio-kizunaren edo elizkizunaren funtsezko, beharrezko eta araupeturiko egin-tzei eta keinuei.

Ik. Errittoa, 1 eta 2.

Zeremoniala

Berez, edozein *erlijio-kizun edo *eliz-kizun betetzeko formalki ezarrita dauden ohikune, zeremonia eta jokamoldeen multzoa. Horiek biltzen dituen liburuari zeremoni liburu edo zeremoniala deritza.

Ik. Zeremonia.

Zeremonilaria

*Liturgikizuna edo nolana-hiko *elizkizu-na zuzentzen duen bereterra, *apaizari, la-guntzaileei eta herriari errittoaek erakutsiz eta egoki bete eraziz.

Ik. Zeremonia.

Zerenak

Sin.: Itsasneskak

Mitologia klasikoan --greko-erromata-rraan--, itsasoko *jeinuak dira, emakumearen buru-bularrak dituztenak eta osterantzeko gorputza hegazti-itxurakoa. Siziliako itsa-sertzean bizi omen ziren. Ahots zoragarria omen zeukaten, eta itsas-jendeak liluratzen eta erakartzen omen zituzten, beren untxiak arroken kontra porrokaerazteraino.

Zerga(la)ria

Ik. Publikanoa.

Zerua

1. Sin.: Ortzia; Zeru-sapaia. Hasteko, hainbat herritako antzinako kosmologiaren bereizten zituzten hiru mailen artean gore-nekoa zen zerua (lurra, erdikoa, eta lurraz-pia edo ifernua, behekoa); euskaraz zeru-sa-paia ere esan izan dute, munduaren sapaia gisa ikusi izan dutelako, eguzkia, ilargia eta izarrak zintzilik zeudeneko edo ibili zebiltzeneko esfera.

Ortzi ere esan izan diote euskaraz, eta horretatik datoz hainbat fenomeno atmosferi-koren izenak; baita antzinako euskaldunen zeruetako jainkoaren izena ere. Izan ere,

zeruko astroak (eta bereziki *ilargia eta *eguzkia) jainkoetsi egin izan dituzte Herri askotan eta horiei gurtza eman diete. Ik. Astro-erlijioa.

2. Hortik etorri da gero zerua jainkoen edo Jainko bakarraren bizilekutat eta zer-bait santutat hartzea. Zerua eta mendi-tontor gorenek bat egiten dutenez, hauek ere sakrattutat eta jareslekutat hartzen dituzte, zeruarekin duten hurbiltasunagatik. Baina hainbat Herritan (Txinan, indogermaniarretan) Jainko gorenaren bizilekua da zerua: beste jainko guztien gainetik da-goena.

Itun Zaharrea, zeru-sapaitik harantz dago Jainkoaren bizilekua; baina, bestalde, bere eskuetako obra da, eta uxatu egiten dute zerua Jainkoarekin berarekin berdintze-ko arriskua: Jainkoa zerua baino handiagoa da, ez da han kabitzen eta edonon dago bera. Gainera Israelen erbelazio-historian Jain-koa hurreratu egiten zaio Herriari, beraren bizilekua (*etxola, *tenplua) gizarte-bizie-rako erdigune izateraino. *Gizakundearen bidez, Jainko zerutarren eta lurtarren, Jainko traszendentearen eta imanentearen batasun osoa gertatzen da, erabait bestelako den Jainkoa gizon-emakumeen historian bertako eta tarteko izateraino.

Jainko zerutarra izanik, zerua da haren inguruan dauden *aingeruen bizilekua ere, Bibliaren arabera. Kristau-sinestean, ber-riz, salbatu eta jainkoaganatu direnen bi-zilekua da zerua. Jesukristo beraren eta Ama Birjinaren *piztuera ondoko garaipena, zeru-ra igotze (=zeruratze) gisa ulertzen dute.

Kristau askoren gogaiera herritar eta arruntean, zerua hildako dohatsuen bizile-ku, antzinako kosmologiaren arabera uler-tzen dute: hots, goian, ortzitik edo zeru-sapaitik haraindi dagoen leku gisa irudika-tzen dute.

Hala ere, gaurko kristau-teologiaren arabera, zerua ez da lekuren bat, eta bai egoera edo biziera aintzatsua, Jainkoaren grazian hildakoek --edo katolikoek sinestez, *garbitokian beren bekatuetatik garbitu di-renek ere bai-- lortu dutenena. Lurrean ger-tatu ezin daitekeen gizakiaren betetasun zorionekoa, Jainkoagan bakarrak gertatzen dena, adierazten du zeruak orduan.

Teologia tradizionalak ikuspen dohatsuz-ko gozamentzat definitu du zeruko egoera. Zeruko zoriona, ordea, ez da bakarkakoa eta izpirituala soilik, gizaki sozial, elkar-teko, material-izpiritualarena eta kosmos osoarena baino.

Horrekin zerikusi handia du piztuerako sinesteak: horren bitartez lortzen du doha-



Zerua, Robert Fludd-en Utriusque Cosmi historia liburutik (Oppenheim, 1619).

tsuak bere zorion betea, Jainkoagan, beste dohatsu guztiekin eta irudiberrituriko mundu osoarekin batera. Horregatik zerua ez da kristauarentzat gorputzetik eta mundu hone-tatik ihes egitea, "zeruetako erreinua" edo "jainkoaren erreinua" lur eta historia hone-tan bait doa eraikiz, *zuzentasuna, *maita-suna eta askatasuna lantzen direnean, zeruan betirako burutzapena lortuko duten arte.

Kristau-zerua eta *nirvana budistak ba-dute zerikusirik, batez ere kristau-zerua esperientzia mistikoaren legez gizakiaren eta Jainkoaren arteko bat-egitea eta nola-bait gizakia Jainkoagan suntsitzearen erara ulertzen bada. Bestalde, zeruaren kontzeptua badu islamak ere, sentsuetako zoriona eta betetasuna nabarmentzen badu ere. Ik. Isla-mismoa.

Azkenik, batzutan Jainko bera adierazte-ko erabiltzen du kristau-hizkerak zerua hi-tza.

Ik. Dohatsutasuna; Betiko bizitza; Geroren-goak; Ikuspen dohatsua; Paradisua.

Paulo Agirrebaltzategi

Zeru-jainkoa

Zeru jainkoetsi eta nortua; hainbat he-rritan eta erlijiotan ezagutu dute, baina bereziki indogermaniarren, mongoliarren eta antzinako txinatarren erlijioetan. Konfuzio aurreko Txinan, hain zuzen, Zerua izena zuen Jainko nagusiak.

Jainko gorenarekin zerikusirik badu sa-rritan.

Ik. Jainko Gorena; Zerua.

Zeru-lurrak

Mundu osoa edo unibertsoa adierazteko

Bibliak erabiltzen duen esakunea. Jainkoak sortuak dira zeru-lurrak, eta beraren ardu-rapean dabilta ibili, kristau-fedearen ara-bera.

Ik. Kreaizioa.

Zeru-sapaia

Ik. Zerua, 1.

Zeruetako erreinua

Ik. Jainkoaren erreinua.

Zeruratzea, Ama Birjinaren

Ik. Ama Birjinaren zeruratzea.

Zeruratzea, Jaunaren

Ik. Igokundea.

Zesaropapismoa

Elizaren eta estatuaren arteko harrema-n eraketa-modua, zeinetan estatu-buruak Eliza osorik kontrolatzen bait du. Inoiz Eliz irakaslegoaren arazoetan ere erabaki-tzeraino iritsi izan da zesaropapismoa. His-torian zehar, Konstantino eta hainbat enpe-radore eta Karlomagno nabarmendu dira zesa-ropapista gisa, beste monarka edo agintari absolutista askoren artean.

Ik. Estatu-Eliza.

Zezena

Antzina-antzinatik gurtu dute zezena. Funtsean beraren indarrak, izugarritasunak eta ernalmenak harritu dute jendea.

Bi aldetara joan da idiaren sinbologia eta gurtzapena: alde batetik, Ama Lurraren, *ilargiaren eta ernalkortasunaren sinboloa da Mitrari oparitzat eskaintzen dioten zeze-na, Egiptoko Osiris jainkoarekin bat egiten duena, etab. Beste aldetik, *Eguzki jainkoa-ren eta jainkozko ernalmenaren sinboloa da: Menfis-eko Apis zezenaren *gurtzapena; zeze-naren irudia agertzen da, Ra eguzki-jainkoa-rekin batera ere. Dena dela, autoreek nahia-go dute zezena gurtza uranikoarekin lotu, lehoia bezala; idia, berriz, gurtza teluri-koarekin.

Bibliak ere zezenaren indarrarekin erka-tzen du Jahverena, eta haren irudipean gur-tzen dute nonbait batzutan (Ex 32; 1 Erg 12,28). Bestalde, zezena *erreoparitan es-kaini ohi zuten, horren *odola garbikuntza-tarako erabiliz.

Ik. Taurobolioa; Ugalkortasuna; Ama lurra.